



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2019ko OTSAILA - 201 zenbakia

Otsailean hasiko da Eskolartekoa

Gipuzkoan hasiko da egitasmoa eta udaberria hurbildu ahala loratuko da beste lurraldeetan ere. Herralde osoko parte hartzaileak elkartuko dira gero ekainaren 8an, Saran.

Saguzarra hasia da oinak burura ekartzen. Eskolartekoaren irudi den maskotari ez zaio askorik falta hegalak astintzeari ekin eta lurraldez lurralde hainbat bertsozale gazteri bertsoa eragiteko.

Hiru hamarkadataro bidea egin du egitasmoak lurralde guztietan modu bateratuan egiten denetik, eta 31. aldia izango du aurtengoa. Idatzizko zein bat-bateko txapelketak egin ohi dira Euskal Herriko ikastetxeetan; Ikastolen Elkarteak eta Bertsozale Elkarteak gauzatzen dute elkarlanean bat-bateko egitasmoa. 15-18 urteko gazteek hartu ohi dute parte horretan.

Ekainaren 8an egingo da Euskal Herriko Eskolartekoaren jaia, Saran. Han elkartuko dira aurretik lurraldez lurralde egindako eskolartekoetan aritu diren

parte hartzaileak; kasu gehienetan, probintzia bakoitzeko bina ordezkari.

Hala, lurraldeetan abiatuko du bere bidea Eskolartekoak. Gipuzkoan hasiko da otsailaren 15ean, 23 parte hartzaileekin. Bi hilabetetan zenbait saio eginda, jai giroan amaituko da Lasturren, apirilaren 5ean. Egun berean egingo da Eskolartekoa Nafarroan; Arantzan elkartuko dira bertsozale gazteak.

Udaberri bete-betean harat-honat ibiliko da saguzarra, maiatzean gauzatuko baita Eskolartekoa Araban, Bizkaian eta Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan. Bizkaian lau saio egingo dira azken saioaren aurretik; maiatzaren 25ean egingo da finala. Egun horretan elkartuko dira Lapurdiko, Baxenabarreko eta Zuberoako

bertsozale gazteak ere; Hazparnen egingo da hitzordu hau. Araban bi egun hartu ohi dira, adin ezberdinetako gazteentzat: nerabeek maiatzaren 11n ospatuko dute Eskolarteko jaia, Legution, Bertsoa Bizi Gazte Egunarekin batera. Gazteagoentzako maiatzaren 25ean izango da festa.

Bertsotan aritzeko lekua eskaintzen zaie Eskolartekoaren bitartez gaztetxoei, eta etorkizuneko bertsolari eta bertsozaleak trebatzeko plaza da. Euskal Herriko gazteen arteko harreman sarea osatzeko bidea ematen die topagune honek; gainera, ikasturtea amaituta, Bertso Udalekuetan horri jarraipena ematen diote bertsozale gazte horietako askok. Esnatzear da saguzarra.



ANDONI
EGAÑA MAKAZAGA

Ondarroa, 2019-01-06

Gaia: ...eta zuk zer praktikatzten duzu?

Doinua: Azken arnasa eman nahi nuke

Praktikatzen dut hitzaren lurra mihia dela goidea praktikatzten dut aita-amengandik ikasitako moldea. Praktikatzten dut gorria eta ikasi nahi dut morea horrela nahiko hots politeko irteten zait akordea seme-alabei utzi nahi diet zeozer pixkat hobea.



Saran egingo da hirugarren urtez Euskal Herriko Eskolartekoaren jaia. / XDZ

F.C.BAIMENA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Eredakzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xepelar Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazioa@bertsozale.eus

Otsailaren 9an hasiko dira Arabako eta Nafarroako bertsolari txapelketak

Araian eta Tuteran ekingo diote txapelketek beren bideari asteburu honetan; martxoaren 23an amaituko da Nafarroakoa, Iruñean, eta handik astebetera Arabakoa, Gasteizen.

Pasa dira bi urte eta txapelketa garaia da berriro ere Araban eta Nafarroan. Bide antzerkoa eginez, otsailaren hasieran elkarrekin abiatu eta martxoaren amaieran bukatuko dira biak. Lau final laurden, hiru finalurreko eta finala egingo dituzte Nafarroan, eta hiru final laurden, bi finalurreko eta finala Araban.

Otsailaren 9an, larunbatean, izango dira lehen saioak bi txapelketetan. "Tuteratik Urdazubira, Iruritatik Lizarrara, Lesakatik Atarrabiara eta Etxarri Aranatzetik Iruñera, Nafarroaren berdeak, horiak eta gorriak" zeharkatuko ditu 2019ko Nafarroako Bertsolari Txapelketak. Urtarrilean aurrekanporaketak eginda, Erriberan hasiko den bidean 24 bertsolari ariko dira kantari.

Zehazki, Tuteran izango da lehen saioa, 17:30etik aurrera, hango musika eskolan: Aimar KARRIKA, Alazne UNTXALO, Eneko FERNANDEZ, Joana ZIGANDA, Mikel LASARTE eta Saats KARASATORRE bertsolariak igoko dira oholtzara, eta Maialen BELARRAK jarriko dizkie gaiak. Otsailean final laurdenak eginda, martxoko lehen bi asteburuetan jokatuko dira finalurrekoak Atarrabian, Etxarri Aranatzen eta Lesakan. Handik sailkatutakoek martxoaren 23an Iruñeko Anaitasunan abestuko dute.

Final laurdenetako eta finalurrekoetako sarrerak eskuragai daude www.bertsoarrerak.eus atarian.

Martxoaren 30ean izango da finala Araban

Iragan larunbatean aurkeztu zen Arabako Bertsolari Txapelketa Zaldudon, Arabako Bertsozale Elkartearen urteko batzarra baliatuz. Udazkenean egin ziren kanporaketa saioak, eta zehaztuta geratu ziren datorren txapelketa honetan parte hartuko duten 18 bertsolariak.

Otsaileko hiru larunbatetan final laurdenak egingo dira, larunbat honetan hasita: Felipe Zelaieta, Iñaki Viñaspre, Jon Ruiz de Pinedo, Manex Agirre, Paula Amilburu eta Rikardo Gonzalez de Durana igoko dira oholtzara Araian, 17:30ean. Martxoaren 9an eta 16an Legution eta Dulantzin emango ditu finalerako azken pausoak txapelketak, eta martxoaren 30ean Gasteizen jokatuko den finalean jakingo dugu nork jantzi duen Arabako txapela.

Sarrerak saioa jokatuko den tokietan salduko dira Arabako Bertsolari Txapelketan.

Txapelketa urte osoan egiten den lanaren emaitza da: aipatzekoak dira ikastetxetan Bertsozale Elkartek bertsolaritza irakasteko martxan duen proiektua, bertso eskolen sarea edota aisialdian egiten diren egitasmoak. Eta, orain, bertsolarietara ikusgarritasuna emanez, bertsozaintza sustatu eta gizartearen ezagutarazteko bidea egingo du txapelketak.

Bi txapelketon informazio gehiago, www.bertsozale.eus atarian.



24 bertsolarik hartuko dute parte Nafarroako Bertsolari Txapelketan. / XDZ

Bertso Udalekuetan sukaldari aritu nahi dut!

Ala begirale edo, zergatik ez, zuzendari. Otsailaren 11n irekiko da izena emateko epea eta apirilaren 5ean emango zaie erabakiaren berri interesdunei.

Duzunaritze, Uitz, Muxika, Orio eta Zuhatza izango dituzte helmuga 2019ko Bertso Udalekuek. Egonaldi horiek gaztetxoek eta ekintzez hornitu aurretik, ordea, hezitzaileak ezinbesteko ditugu.

Begiraleak, sukaldariak eta zuzendariak behar ditugu Bertso Udalekuetarako; begirale gisa praktikak egiteko aukera ere izango da. Interesa dutenek otsailaren 11tik martxoaren 4ra eman ahal izango dute izena www.bertsozale.eus atarian egokituko den izen-emate orria betez edota 943 694129 zenbakira deituz. Gogoan izan hezitzaileek nahitaez parte hartu beharko dutela maiatzaren 4an Amasa-Villabonako Subijana

etxean, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen egoitzan, egingo den prestaketa saioan.

Bost txanda daude aukeran eta haietan 9 urtetik 18 urtera bitarteko Euskal Herri osoko gazteekin ariko dira hezitzaileak. Uztailean egingo dira horietako lau egonaldi, eta bosgarrena, abuztuaren. Bertsolaritzaz harago, eta egonaldi bakoitzak bereizgarri dituen ezaugarriekin bat datozen aisialdiko ekintzez gainera, sormenarekin eta elkarren arteko harremanekin zehazkiak izango diren lanketak ere egingo dituzte Bertso Udalekuetan.

Uda ez dago hain urrun.



Maiatzaren 4an prestaketa eguna izango dute hezitzaileek. / XDZ

Ondo pasatzeko? Taldean, hobeto!

Bertso eskolen arteko harremana estutu eta jolas-giroa sustatzeko, Bizkaiko Taldekakoa egingo da udaberrira bitarte.

Bakarkako txapelketek gain, taldekakoek ere indarra hartu dute azken urteotan. Arabako Bertso Kuadrilla Artekoen eta Nafarroako Bardoen eredu jarraituz, duela bi urte ekin zion bidea Bizkaiko Taldekakoak; orduan egin zen Gipuzkoako Herriartekoa ere eta gerora formula bera probatu dute Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa amaitu berritan, bi urteko zikloari eutsiz, abian jarri da Bizkaiko Taldekakoa berriro ere. Bizkaiko bertsolaritzaren oinarria indartzea du helburu, eta eskualdeko eta bertso eskolen arteko elkargune ludikoa sustatzea. Arrazoi ezberdinengatik txapelketan parte hartzen ez dutenei bestelako aukera bat eskaintzeko eta antolatzaile, epaile eta gai jartzaile berriak sortzeko helburuz ere antolatzen da Taldekakoa.

Guztira 21 taldek eman dute izena eta 200 parte hartzaile inguru izango ditu. Denetariko adinak eta profila daude, eta, aniztasun horretatik Taldekakoa aberatsa izango dugula aurreikusten dugu. Bi fase eta finala izango ditu txapelketak: martxoaren erdialdera arte lehena eta maiatzean amaituko da bigarrena. Maiatzaren 25ean jai giroan amaituko da aurtengo Bizkaiko Taldekakoa, Bizkaiko Eskolartekoarekin batera.



Giro aparta izan zuten parte hartzaileek duela bi urte. / XDZ



Puntua jarrita

PELLO BASURTO ARRUTI

Galdera potolo samarra da Aitor lehengusuak egin didana, baina nire iritzia ematen saiatuko naiz. Bertsojaritza, formatu ezberdinetan jorratzen den jarduera da; gainera, azken urteetan gero eta ezberdinagoak dira egiten diren saio motak: betidanik egin diren bertso afariak, poteoak, jaialdiak, bertso tramak, saio musikatuak eta abar luze bat. Baina iruditzen zait, gaur egun, gizartean bertsojaritzaz pentsatzerakoan, gehiago handi bati, txapelketa datorkiola burura; alegia, lehia, irabazlea, saria.

Logikoa ikusten dut, batez ere, urte hauetan guztietan, alor horri eman zaion garrantzia kontuan hartuta eta hedabideetan isla handia duela jakinda. 1935. urtean jokatu zen lehen Bertsoari Txapelketa Nagusia eta Basarri izan zen garaile. Ziur naiz garai haietan "bertsojaritza" hitza gizartean aipatzean, taberna, festa, omenaldia, sagardotegia, izaera pikaroa eta halako kontzeptuekin lotzen zela. Parranda eta alferkeria ere burura etortzen ziren hitzak izango ziren agian, baina goazen arreta jartzera bertsoariak berak bertsoan egiterakoan sentitzen zuen eta duen horretan.

Zerk egiten dio ilusia bertsoariari? Zerk emozionatzen du? Zerk erakartzen du bertsojaritzara? Zerekin gozatzen du? Nik, bertsoak entzun eta mota ezberdinetako saioetara joaten den norbanako bezala, zalantza handiak dauzkat.

Asko hitz egin izan da txapelketa(k) soilik jarraitzen d(it)uen "bertsozale" klase horretaz. Baina lehiakeria bertsoaren munduan askoz hedatuago dagoela esango nuke. Ikus-entzule gisa, bertsoak entzuteaz gain, gauza asko sumatzen ditugu. Kantuan ari den bertsoariaren atzean eserita dauden bertso kideetan, beren erreflexio, atsedean momentu une errespetagarrian egonik, ikus daitezkeen seinaleez ari naiz. Adibidez, oholtzaren atzetik aurrera txalo zaparradak heltzen direnean, txalogilea bertsozale bat gehiago bezala gozatzen ari dela sentitzen dugu, batzuetan.

Izarne Zelaiari jarriko diot puntua bukatzeko: Behin utzi eta gero, nolatan itzultzen da bat plazara?

Koplak

Bertsolariei eta gai-jartzaileei zuzendutako mintegia antolatu du Lankuk

Bigarrenegingo du lansaioa Lanku Kultur Zerbitzuak enpresak. Sortzaileei eskaintzen dizkien zerbitzuen hausnarketa eta hobekuntza du helburu, eta bertsoariak eta gai-jartzaileak parte hartzera deituta daude. Martxoaren 2an izango da Amasa-Villabonako Subijana etxean, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen egoitzan, 9:30etik aurrera.

Poto-Finixa



Fitxaketa berriak, Hitzetik Hortzeran

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Jaso BertsoZalea berripapera digitalki

Paperaren erabilera murriztuz eta edozein momentutan sakelekoan irakurri ahal izateko BertsoZalea berripapera posta elektronikoz jaso nahiko bazenu, idatzi komunikazioa@bertsozale.eus helbidera eskaria ginez.



14 SORTZAILE JOLASEAN

- Igor Elortza-Joseba Sarrionandia
- Uxue Alberdi-Danele Sarriugarte
- Julio Soto-Gorka Urbizu
- Nerea Ibarzabal- Eneko Sagardoy
- Andoni Egaña-Ruper Ordorika
- Onintza Enbeita- Maite Berriozabal
- Manex Agirre- Ilaski Serrano

PUBLIZITATEA